

XARETA OINEZ

POTTOKAREN BIDEA

"...gaurko akelarreak hedatu dira eta ez bakarrik Zugarramurdin, segituko bai epaiketak sorginkeriaz baikaude josirik, eta oraindik ez dugu aurkitu Axularren itzalik."

Gaxeneko Inesa, Maria Zozaia
Jose Anjel Irigarai

TESTU ETA ARGAZKIAK



Mikel Arrizabalaga
(Donostia-Eibar, 1957)

Egunkaria, Berria eta Gara egunkarietan, Pyrenaica, Euskal Herria eta Nora aldizkarietan eta Euskadi Irratian mendiarekin zeri-kusia duten makina bat artikulatu eta kolaborazio egin ditu. Euskal Herriko mendietan ez ezik, Pirinioak, Alpeak, Atlas eta Himalaiako mendietan ibilia da.

Udazkena Sarako inguruan





Bide-seinaleak


Xareta izenarekin, mugaren bi aldeetako lau herri osatzen duten euskal eskualdeari deitzen zaio: Zugarramurdi eta Urdazubi Nafarroan, eta Sara eta Ainhua Lapurdin. Kantauri itsasotik 10 kilometrora dauden lau herri hauekako biztanleak ederki moldatu dira mendeetan zehar. Historiaurretik hasi eta gaur egun arte mugaz bi aldeetako elkarbizitza oparoa izan dela frogatzen duten hamaika testigantza daude: kontrabandoa, gerla karlistak, Donejakue bidea, akelarreak, lezeak eta abar. Ingurune magikoez zipriztindutako paisaje liluragarriak. Lau herri hauekako kaleetan zehar ibiliz gero, bisitatzeari merezi duten leku ezagun eta ez hain ezagunak aurkituko ditugu.

Ibilaldia zirkularra da eta nahieran burutu daiteke, bai norabideari dagokionez baita egun kopuruari dagokionez ere. Hala ere, herri bakoitza lasai ezagutzeko, bizpahiru egunetan osatzea komeni da. Artikulu honetan, Xaretako biztanleak, mendez mende izan dituzten harreman estu horien bideetan barna ibiliko gara bi egunez.

1. ETAPA: SARA-ZUGARRAMURDI-URDAZUBI

LUZERA: 18,4 km | DESNIBELA: 552 m
DENBORA: 4 ordu 30'

Sarako elizaren ondotik abiatu, Lahetxipia etorbidetik aurrera egin eta berehala, maldan behera egingo dugu Erdi Aroko galtzadan zehar. Sara herriak ondasun aunitz gordetzen ditu bere kale eta inguruko lurretan. Herriko Erdi Aroko galtzadatik, Done Jakue Bideko adar bat igarotzen da eta, bertan, kokatzen dira 14 otoiztegiak, galtzadaren bi aldeetan. Axular idazlea erretore izan zen San Martin eliza herriguneari altxatzen da, herriko etxetik gertu. Herrikan kanpo, berriz, Sarako lezeak eta Larhango tren ttipia dira bisitari gehien jasotzen dituztenak.



Larhun mendiaren magalak gure eskuinera ikusiko ditugu eta berehala iritsiko gara San Isidroren otoizlekuaren ondora. Galtzadaren aldapa igo eta, parez pare ikusiko dugu bide-seinaleak, Kaikuenea base-rirantz zuzenduko gaitu maldan behera. Asfaltoa utzi eta egurrezko zubitxoak igaroko dugu basoan murgilduz. Bidean ez galtzeko, eta norabide zuzena aukeratzeko, pottoka edota triangelu urdinen irudiak, harri, harluz, zuhaitz-enbor edota zutoinetan margoturik ikusiko ditugu ibilbide osoan.

Arxuria mendiaren magalean kokatzen diren lezeak, ezohiko formazio geologikoak dira

Errekatik altuera hartu, basotik atera eta lurrezko pistak soro zabalak zeharkatuz borda batzuen ondora eramango gaitu. Olhaineko muinoa ezker aldean eta lanteliko tontorra aurrean, erraz egingo dugu aurrera. Etxola animalien parkera heltzean, aldapa gogortu

Zugarramurdiko lezeak







Larhun aldeko ikuspegia

egiten da, eta Arxuriako mikazko plakek eguzkitan daudenean sortzen duten distirari begira, magalera gerturatuko gara xenda batekin bat eginez. Bidea estutu egiten da tarte honetan, eta maldan behera egingo dugu apartakaleku batera iristeko. Azken aldapa txikiak, Sarako lezeetako sarreran utziko gaitu.

Arxuria mendiaren magalean kokatzen diren lezeak, ezohiko formazio geologikoak dira, gela zabal eta oso handiak dituena. Lezearen zaintzailea zen Castillo jaunak, XX. mendearen hasieran aurkitutako arrastoak gordetzeko ohitura hartu zuen eta, 1941ean, Jose Miguel Barandiaran etnografo eta arkeologo ezagunak egin zituen ikerketen ondorioz, eta beranduago, Aranzadi Zientzia Elkartek eta Normand jaunaren taldeak egindakoei esker hainbat aurkikuntza egin ziren. Lezeen kanpo aldean, parke megalitikoa eta museoa ikus daitezke.

Lezeak atzean utzi, eta harrobiaren gain aldetik hedatzen den galtzada polit eta eroso batetik aurrera egingo dugu. Bide-seinaleek, baso txiki batera eramango gaituzte eta bertatik ateratzean Zejozilloko leizera gerturatuko gara. Ingurune karstiko honetan leze txikiak eta artegi zahar bat ikusteko aukera izango dugu. Errepidean zehar metro batzuk bete, berriro hau utzi eta ezker aldera jaitsiko gara basoan murgilduz. Gaztainondo eta ehunka

urte dituzten haritzen artean, aldapan behera abiatuko gara Axxoko lezea dagoen lekua adierazten duen seinaleraino. Zugarramurdiko lezea zeharkatzen duen Infernuko errekarari iritsiko gara segidan, eta hau gainditzeko zurbia gurutzatu ondoren, azken aldapari eutsiko diogu Zugarramurdiko lezeen sarreraraino. Akelarre famatuak ospatzen ziren lezeak bisitatu eta gero, herriraino igoko gara.

Gaur egun, Zugarramurdi iraganean sorginak biltzen ziren lekutzat hartzen dugu

Euskal Herrian beti izan dira sorginak. Jakina da herritar askok beraiengana jotzen zutela sendagaien bila, sendabelar, ukendu eta aholku eske. Baina eliza katolikoak ez zuen

Sarako San Migel oratorioa



mundu magiko hori onartzen eta emakumeek zuten ahalmen hori ezabatu nahian, deabruarekin harremanak izaten zituztela sinestara nahi izan zioten herriari. Inkisizioak erreprezio gogorrari ekin zion eta herri guztietan bere hatzparretan hartu zituen pertsona asko. Euskal Herria ez zen salbuespena izan, eta Zugarramurdi izan zen jazarpen hori jasan zuen herri ezagunena.

Gaur egun, Zugarramurdi iraganean sorginak biltzen ziren lekutzat hartzen dugu eta esaten da, Euskal Herriko sorginak beraien akelarreak antolatzen zituztela han. 1610 urtean, Juan del Valle Alvarado inkisidoreak Zugarramurdi zenbait hilabete igaro eta salaketa ugari jaso zituen. 300 pertsona inguru sorginkerian ibiltzeaz salatuak izan ziren, baina hauetatik bakarrik 40 atxilotu eta Logroñora eraman zituzten. Bertako plazan, 30.000 bat mila ikusleren aurrean, 12 sutean erreak izan ziren (5 kartzelan jada hildakoak) eta gainontzekoek zigor gogorak jasan zituzten (betirako kartzela, ondasunak galtzea, kartzela mugatua...). Gaur egun, Zugarramurdi, akelarreaken eskenatokia geratu da soilik, "Deabruaren Katedrala" izenez ezaguna. Zugarramurdiko leizeak Olabidea erreka (Infermuko erreka izenez ezaguna) sortutako leizeak dira. Leizeen albo batean *akelarrea* dago, Inkisizioaren arabera sorginen gaueko bilkurak

egiten ziren larrea. Horregatik, sorginen bilkurak "akelarre" izena hartzen dute.

Graxiana jatetxearen ondotik aldapan behera egingo dugu porlanezko pista zabaletik. Baso txiki bat zeharkatu ondoren, San Esteban ermitara iritsiko gara. Urdazubiko mugen barruan dagoen ermita, Alkerdi auzoan dago, Zugarramurdiko sarrera baino lehentxeago. XV. mendean du jatorria eta barruan, San Estebanen tailua duen erretaula moderno bat dago.

Errepidea gurutzatu, Etxelekua baserriaren ondotik pasa, Berroberria baserria gure ezkerre utzi eta, Akerdi, Zelaieta eta Berroberriako leizeak gordetzen dituen muinora igoko gara. Berriro errepide aldera jaitsiko gara, Urdazubirako sarrera bilatuz. Bide-seinaleek eskuinera jaisten den errepidera bideratuko gaituzte, baina hau berehala utzi eta eskuinetik ateratzen den lurrezko pista zabaletik jaisten jarraituko dugu. Laster, Urdazubiko leizeak, Ikaburuko leizeak ere deituak, gure arretera erakarriko dute. Leorlaz auzoan kokatuta dauden leize hauek Urtxuma erreka sortutako higaduraren ondorioz sortu ziren orain dela 14000 bat urte. Inguru oso ezaguna da, garai batean bertatik pasatzen zuten kontrabandoagatik.

IX. mendean agustindarren kongregazio txiki batek erromesentzako ospitale bat ezarri zuela uste da

Leizeak bisitatu eta gero, kilometro eta erdira dagoen Urdazubi herrira iritsiko gara, baina aurrez, errepidetik gertu, Axular idazlearen jaiotetxea bisitatzeko aukera izango dugu. Herrian barneratzean, lehenik errota eta gertu San Salvatore monasterioa ikusiko ditugu.

Jatorriaren data zehatzik zehaztu ezin bada ere, uste da agustindarren kongregazio txiki batek erromesentzako ospitale bat ezarri zuela IX. mendean. XII. eta XIII. mendeen artean, ospitalea premostratense ordenak osatzen zuen, eta bere abadea Urdazubi eta Zugarramurdiko jauna izan zen 1785. urtera arte. Ez da Erdi Aroko ezer kontserbatzen, eta XVI. eta XVIII. mendeen artean izan zuen garairik bikainena, gaur egungo eraikuntzak garai horretakoak baitira. Monasterioak bi sute garrantzitsu jasan zituen: 1526an (Nafarroako independentzia galdu zuenean) eta 1793an (Frantziako Konbentzioan, Frantziako tropek ingurua inbaditu eta Urdazubiko monasterioa eta hiribildua erre zutenean). Azken sute horretan, monasterioko liburutegi handia, 9000 liburuki baino gehiagorekin, suntsitua izan zen.

Frantziako Konbentzioaren ondoren (1793-1795), monjeek Loiolako santutegian babestu behar izan zuten 1806 arte. Handik gutxira, 1839an, Mendizabalen desamortizazioa gertatu zen (ministro espainiarra, herri-ondasunak eta elizarenak desjabetzen eta saltzen dituen). Monasterioa behin betiko utzi zuen premostratarren ordenak, eta monasterioaren tenplua parrokia-eliza bihurtu zen. Monasterio zaharretik, Basilika eta klaustroa kontserbatzen dira, eta, beste gela batzuekin batera, monasterioaren museo eta arte-erakusketa osatzen dute. Monasterioaz gain, Axular idazlearen jaiotetxea eta errota bisitatu daitezke.

2.ETAPA: URDAZUBI-AINHOA-SARA

LUZERA: 19,3 km | DESNIBELA: 405 m
DENBORA: 4 ordu 35'

Bigarren etapari hasiera emateko, San Salvatore monasteriaren ondotik abiatuko gara. Ugarana ibaia zeharkatu eta Iribere auzora zuzentzen den bidea hartuko dugu. Auzo honetan, baserri batzuk, landetxe pare bat, hiru iturri eta ikuztegi bat ikusiko ditugu. Dantxarirenarekin lotzen duen errepidean zehar emango ditugu hurrengo urratsak, baina hau berehala utziko dugu ezker aldetik ateratzen den lurrezko pista bat hartzeko. Ugarana erreka paraleloan hedatzen den bide hau, Baztango Done Jakueren bidearekin bat egiten du.

Euskal estilo etxe ederrez betetako kale nagusiko etxe gehienak Hogeita Hamar Urteko Gerran suntsituak izan ziren

Dantxarinera heldu baino lehen, bidea utzi eta Landibar auzora bideratuko gaituzte bide-seinaleek. Beherago ikusiko dugun bentetara jaitsiko gara lurrezko pistan zehar. Patxo Bentatik gertu dagoen zubitxo batek launduko digu Lapituloko erreka gainditzen, Urdazubi eta Ainhoako lurrek muga egiten duten toki berean.

Hemendik Ainhoaraino bidea gorabeheratsua gertatuko zaigu. Lehendabizi baso landatu berri bat zeharkatzen duen lurrezko bide pikotik igoko gara harrobira ailegatu arte eta gero, asfaltatuko errepide zabaletik jaisten hasiko gara gure eskuinera hedatzen den pista zabal batekin topo egin arte. Lan-

Urdazubiko San Salvatore monasterioa





Patxo Benta aldera jaisten

dibarzubi izena duen bide honek Ainhoara zuzentzen den errepide nagusira gerturatuko gaitu, baina eskuinera dagoen porlanezko bide batek maldan gora jarriko gaitu berriro. Beste harrobi txiki baten ondotik pasa eta, Arrantzeko Ama Birddinaren (Arantzako Ama Birjina) kaperatik jaisten den bidearekin bat egingo dugu. Aldapan behera segi eta Ainhoara helduko gara.

Ainhoa Ipar Euskal Herriko herri tipikoa dela esan daiteke, baina politenetakoa ere bada. Leku txikia da, funtsean kale bakar batez osatua. Baina etxeak bertako arkitekturaren adibide ezin hobea dira, izkinetan dagoen harriria eta tonu gorri edo berde biziko egurrezko leihatilak ezaugarri dituztela. Done Jakue bideak Ainhoa ere zeharkatzen du, eta, gainera, inguruetak mendi-ibilaldi ugarietarako oinarritzko leku ona da.

Euskal estilo etxe ederrez betetako kale nagusiko etxe gehienak Hogeita Hamar Urteko Gerran suntsituak izan ziren, eta, gaur egun ikusten ditugunak XVI. eta XVII. mendeetan berreraiki ziren. Kale berean kokatzen da XVIII.

mendeen eraiki zen Jasokundeko Andre Mariaren eliza eta hau inguratzen duen hilerria. Hilerrri hau, XVI. eta XVII. mendeetako hilarri tradizionalaz beteta dago. Eliza eta hilerriaren atzeko aldean, 1849an eraiki zen herriko frontoia dago.

Kale nagusiaren bukaeran, Napoleon III.ak eta bere emazte Eugenia de Montijo enperatrizak, 1858an bisitatu zuten Alaxurrutako garbitegia dago, garai batean herriko emakumeak arropa garbitzera biltzen ziren lekua.

Axular idazlea erretore izan zen San Martin eliza herrigunean altxatzen da

Ibilbidearen azken zatia burutzeko, kale nagusia igaroko dugu, eta, herritik atera gabe, errepide asfaltatu bat hartuko dugu (Dantxarrieko bide zaharra). Pare bat kilometro bertatik bete eta gero, hau utzi eta GR-10aren trazadurarekin bat egiten duen bide balizatutik Urdazubi ibaiaren ondoraino jaitsiko gara. Ho-

nen paraleloan marrazten den bidetik aurrera egin eta hau zeharkatzen duen zubia igaroko dugu. D4 errepidea gurutzatu eta beste kilometro pare bat ibaiaren ondotik marrazten den pista zelaitik segituko dugu.

Erreka baten paraleloan doan lurrezko xendana barrera jarraitu, hau gainditzen duen zubia igaro eta pista zabalean zehar altuera irabazten hasiko gara. Berriro muga egiten duten lurretara igoko gara eta bertatik, etxe, baserri eta borde z ziprztindutako paraje berde eta argietara helduko gara. Borda Aldeak auzoa atzean utzi eta altuera jaisten hasiko gara. Asfaltozko zatiak, lurrezko pista eta xendekin tartekatzen diren lur hauetan emango ditugu hurrengo minutuak, D306 errepide nagusiarekin bat egin arte.

Errepidea gurutzatu eta berehala, Sarako galtzadatik gorantz egingo dugu San Miguel otoizlekura iritsi arte. Puntu honetatik, aldapan behera egingo dugu San Isidro otoizlekuarekin bat egin arte. Hemendik herriraino geratzen zaigu tartea aski ezaguna dugu, ibilaldi honen hasierarekin bat egiten du eta.